



***Prebentzio kanpainaren aurkezpena:
“Egizu hiesaren proba eta atera zaitez zalantzatik”***

Bilbo, 2007ko azaroak 19

OSASUN SAILBURUAREN HITZAK

GIB infekzioaren atzerapen diagnostikoa

Sarritan, paziente seropositiboak atenditzen dituzten profesional sanitarioek gure ospitaleetan errepikatzen den egoera batez hitz egiten digute. GIB infekzioa zeukatenik ez zekiten hainbat pertsona iristen dira ospitalera, gaixotasuna –hiesa– oso estadio aurreratuan dagoela eta horietako asko, edo laster hiltzen dira edo, bizirik ateratzen badira ere, ondorio larriekin geratzen dira. Eta hau gertatzen da –gehitzen dute etsimenduz– gaitz honengatik inork ere hil behar ez lukeen garai honetan. Gainera, honek adierazten digu hain zuzen ere, paziente horiek 5-10 urte zeramatzatela infektaturik, eta ezer jakin gabe.

Infekzioaren atzerapen diagnostikoa ez Euskal Herriko edo Beste Autonomia Erkidego batzuetako eskusiboa. Mendebaldeko herrialde guztietan gertatzen da gauza bera, nahiz eta duela hamar urtetik hona denok eskumenean dauzkagun tratamendu antirretobiral harrigarri onak.

Baina, gainera, hau ez da paziente bat edo biri gertatzen zaien gauza ezohiko bat; aitzitik, lehenbiziko aldiz GIB infekzioa diagnostikatu zaien pertsonen %40ari gertatzen zaio.

Diagnosticoko berantiarra afektaturiko kolektibo guztietan gertatzen da, baina egiaztatu ahal izan dugunez, gizonezkoetan ohikoagoa da emakumeetan baino, heterosexualetan ohikoagoa homosexualetan baino (azken hauek sentsibilizatuagoak daude hiesaren aurrean), 43 urtetik gorako pertsonetan gazteagoetan baino, etorkinetan pertsona autoktonoetan baino.

Hau da berandutze diagnosticoko handieneko pertsona tipoa 43 urtetik gorako gizonezkoa da, duela hainbat urte arriskuko praktika heterosexualak izan dituen.

Luze joko luke eta gainera ez prentsaurreko honi dagokion gaia, analizatzea ea zergatik arriskuko sexu praktikak izan dituzten pertsonak ez diren joaten testa egitera; dena dela, nik bi azpimarratuko nituzke: arriskuaren pertzepzio falta eta emaitzaren beldurra.

Bat infektatua dagoela jakitea eta testa sustatzeko estrategiak

Bat seropositiboa dela jakitea oso garrantzitsua da, ez bakarrik norberaren osasunerako dituen onurengatik, baizik bai eta hirugarren pertsonen birusa kutsatzea saihesten delako. Jokaerei buruz egin diren hainbat azterketek erakusten dutenez, GIBaren eroale egoera ezagutzen denean, arrisku praktikak %68 gutxitzen dira. Halaber, egiaztatu da GIB infekzioa hirugarren pertsonen kutsatze tasa 3,5 bider baxuagoa dela beren egoera ezagutzen dutenen artean ezagutzen ez dutenen artean baino.

Zer estrategia planteatu dira arriskuko praktikak izan dituzten pertsonak testa egiteak daukan garrantziaz ohartarazteko? Denetarik dago. Jarrera erasokorrena Estatu Batuetako

Gaixotasunen Kontrolerako Zentroena (GKZ) da, hiesaren eta beste gaixotasun batzuen aurka borrokatzen diren Agentzia garrantzitsuenetako bat. 2006ko irailaz gero, sistematikoki GIB testa egitea gomendatzen die sistema sanitariora hurbiltzen diren 13 urtetik 64ra bitarteko pertsona guztiei, ospitale, lehen mailako atentzioko zentro, urgentzia... edozein izan dela ere hara eman dituen arrazoia, baldin eta pazienteak berariaz kontrakoa adierazten ez badu behintzat. Jokabide honek eztabaida gogorra sortu du gomendioaren aldekoen eta kontrakoaren artean.

Europar daukagun kultura sozial eta sanitarioa guztiz desberdina da: askoz ere sentsibilizatuagoak gaude giza eskubideen aurrean eta, horrexegatik, beste irtenbide batzuk hobetsi dira.

Kanpaina bikoitza

Hala, Euskadin, bi jokaera ardatz hautatu ditugu: populazio orokorrarentzako informazioa eta osasuneko profesionalen partaidetza.

Lehenbizikoari dagokionez, bihar bertan hastera goaz kanpaina informatiboa, lema honekin: “Arriskuan egon bazara, egizu hiesaren proba eta atera zaitez zalantzatik” batez ere honako euskarri hauek baliatuz: autobus geltokietako markesinak, metroa, telefono kabinak, osasun zentro eta farmaziak eta irratia. Kanpainaren kostua 170.000 eurokoa izango da eta hamabostaldi batean zehar garatuko da.

Etorkinak barne hartu ditugu, beste pertsona batzuekin batera, kanpainako posterrean. Horren arrazoia zera izan da: gure erkidegoan hiru infektatu berrietako bat beste herrialderen batetik

etorria dela; batzuk hemen bertan infektatu dira eta beste batzuk beren jatorriko herrialdean. Kolektibo honetan sumatzen den infekzio berrien gorakadak kezkatu egiten gaitu, ikuspegi sanitariotik ez ezik, askotan berauen zaurgarritasun ekonomiko eta sozialari zor zaiolako. Kanpaina honekin, aipatu kolektiboa ere ohartarazi nahi dugu babes gabeko sexu praktikek suposatzen duten arrisku larriaz.

Geure estrategia oinarritzen dugun bigarren ardatza sistema sanitarioa bera da. Geure profesional sanitarioentzat, batez ere lehen mailako atentziokoentzat, informazioa areagotzen ari gara, egoera jakin batzuetan sexu ohiturei eta arriskuko praktikei buruzko galderak barne har ditzaten historia klinikoetan.

Horretarako, eskuliburu txiki bat elaboratu dugu formatu inprimatuan zein elektronikoan profesional sanitarioei banatzeko. Bertan erakusten da noiz susmatu behar den GIB infekzioa egon litekeela, noiz eskatu behar den analisia, etab.

Jokaera ildo honetan, badugu aurrekari bat benetan ongi funtzionatzen duena. 2000 urteaz gero, hiesaren testa sistematikoki egiten zaie, aurretiazko euren baimen informatuarekin, hala nahi duten Euskadiko emakume haurdun guztiei. Eta horri esker, ia erabat ezabatu dugu GIBaren amagandik feturako kutsapena.

Era berean gogorarazi nahi dut Euskadiko hiru hiriburuetan kontsultategi espezifikoak daudela eta horietan edozeinek egin dezakeela era anonimoan GIBaren testa.

GI Baren diagnostikorako “test azkar” berriak

Azkenik, GI Baren diagnostikoaren arloan izan diren berrikuntza garrantzitsuenetako bati buruz hitz egin nahi dizuet, izan ere, atzerapen diagnostikoari aurre egiteko estrategia guztiaren iraultza bat suposatu baitu: “test azkarrak” deritzenak, alegia.

Duela urtebete eta erditik hona, zerrenda erreaktibo batzuk dauzkagu merkatuan, glukosaren neurketa egiteko erabiltzen direnen antzekoak. Berauetan odol tanta bat ipintzea nahikoa da eta 15 minututan adieraziko digu pertsona horrek antigorputzak dauzkan ala ez. Bai analisia egitea eta bai interpretazioa ezin errazagoak dira, eta fidagarritasuna ia %100ekoa da (sentikortasuna %100, espezifikotasuna %99,7); 7%); noski, hiru hilabete igaro arte itxaron behar da (leihu aldia) arriskuko praktika gauzatu denetik. Analisiak negatibo ematen duen kasuan ziurta daiteke pertsona ez dagoela infektatua. Baldin positibo ematen badu, berretsi egin behar da emaitza proba konbentzionalekin (ELISA eta Western Blot).

Proba hauek merkaturatu zirenetik, hainbat GKEk egiten dituzte beren lokaletan, instalazio mugikorretan (autobusak), saunetan, alterne klubetan, etab.

Euskadin, bi GKE –Arabako eta Bizkaiko Hiesaren aurkako Herri Batzordeak– jadanik hasiak dira test azkarrak egiten. Jakina, baldintza legal guztiak betetzen dituzte: pertsonal sanitarioa testak egiteko, testaren aurre eta ondorengo aholkularitza, kutsatuak egon litezkeen objektu ziztatzaileei buruzko araudia –lantzeta bat erabiltzen da– eta hondakinen ezabatzea; Osakidetzarekin koordinaturik daude emaitza positiboen berrespenerako. Proba bakoitzaren kostua 6 bat eurokoa da.

Analisi hauen inplementazioa atzerapen diagnostikoari aurre egiteko aipatu ditugun estrategien ildo berean dago, izan ere testa egiteko erraztasunak eskaintzen baitituzte sistema sanitaria iristeko zailtasunak dituzten pertsonentzat. Gainera ia ezabatzeraino murriztuko litzateke test konbentzionala sistema sanitarioan egin ondoren, emaitza jasotzera itzultzen ez diren pertsonen portzentajea (emaitzak 4-5 egun geroago ematen dira).

Test azkarren erabilpena segur aski areagotu egingo da etorkizunean. Bere erraztasunagatik, eta emaitza positiboa jadanik ez delako heriotza sententzia, agian autotest gisa ere baimenduko dira, testa norberak egin ahal izateko, haurdunaldi testak egiten diren bezala.

Laburbilduz, beste hainbat aldiz ere esan dugun bezala, arrisku praktikak izan dituzten pertsona guztiak hiesaren testa egitera animatzen ditut, eta profesional sanitarioak analisi hau eskaintzera, zuhurtziaz eta kontu handiaz, infektatzeko arriskuan egon direla susmatzen duten pertsona guztiei.

Gabriel M^a Inclán Iríbar


OSASUN SAILBURUA

2007ko GIB infekzio berrien estimazioak

EUSKADIKO GIB INFEKZIO BERRIEN ESTIMAZIOAK. 2007


- 2007an 150 GIB infekzio berri diagnostikatuko direla estimatzen da, aurreko hiru urteetako antzeko kopurua.
- %67 gizonezkoak dira eta %33 emakumeak.
- %55 harreman heterosexualengatik kutsatu dira, %25 harreman homosexualengatik eta %15 xiringak partekatzeagatik.
- Hiru infektatu berrietatik bat beste herrialderen batean jaioa da.
- GIB infekzio berriaren eta gaixotasunaren (hiesa) bat etortze diagnostikoa %40koa da.

GIB INFEKZIO BERRIAK. 1997-2007



Guztira 1.864 kasu

GIB INFEKZIO BERRIAK KUTSAPEN BIDEAREN ARABERA. 2007



Guztira 150 kasu